

Prestakuntza Plana 2019

Administrazio eta Zerbitzuetako langileak

2018. urteko Prestakuntza Planak, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Katalogoko eta NAPIren prestakuntza jardueraz gain, G9 osatzen dugun unibertsitateek prestatutako prestakuntza jarduera batzuk ditu.

Beste urte batzuetan bezala:

1. Gehienez ere bi prestakuntza jarduera egiteko aukera dago, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eskainitako katalogokoak, G9ren prestakuntza jardueretakoak eta/edo, bestela, NAPIk seihilekorako edo udarako egindako eskaintzakoak.
2. Zenbaketa honetarako salbuespena egingo da hizkuntza ikastaroekin eta NUPEko Lan Arriskuen Aurreikuspenekin.
3. Gehienez ere hiru ikastaro eskatzeko aukera dago (Katalogokoak, G9koak eta/edo NAPIren eskaintzakoak, bai seihilekoetarakoak, bai udarakoak), baina gehienez ere bi prestakuntza jarduera onartuko dira. Norbait lehenengo bi prestakuntza jardueretan **onartua bada edo erreserban badago**, Giza Baliabideen Atalak automatikoki ukatuko dio hirugarren aukera.
4. Ikastaro batean onartutako pertsona batek ez badio aurretiaz Giza Baliabideen Zerbitzuari ez bertaratzeko arrazoi berri ematen, ezin izango du parte hartu onartua izan den Prestakuntza Planeko ondorengo ikastaroan, eta egina duela ulertuko da. Egin dezakeen bigarren ikastarora joaten ez bada, egina duela ulertuko da hurrengo Prestakuntza Planerako puntuazioari begira.
5. Hizkuntza prestakuntzarako inskripzioa egin edo hurrengo ikastaroan prestakuntzarekin jarraitu nahi dutenek hala adierazi beharko dute eskabidean.
6. Prestakuntza jarduerak eskatzeko epea Prestakuntza Plana argitaratzen den egunean hasiko da, eta **2019ko otsailaren 8an bukatuko da**.

G9ren PRESTAKUNTZA JARDUERAK

- G9 osatzen dugun unibertsitateek garatutako jarduerak dira, eta online modalitatean eta/edo bideokonferentziaren bidez emango dira.
- Prestakuntza jarduerak esteka honetan daude: <http://www.uni-g9.net/plan-de-formacion-del-pas--acciones-formativas>
- Prestakuntza jarduera bakoitzeko, NUPEk 5 postu ditu AZLentzat.
- Jarduera hauek kontuan hartzen dira urtero egin daitezkeen bi prestakuntza jardueren muga-barruan, bai eta eska daitezkeen hiru prestakuntza jardueren muga-barruan ere.

- G9ren prestakuntza jardueraren batean izena eman nahi dutenek 2018ko otsailaren 1etik otsailaren 24ra (egun horretan 14:00ak arte) egin behar duten izen-ematea esteka honetan: <https://www.uni-g9.net/inscripcion-de-cursos-para-pas>
- Gehienez ere G9ren bi prestakuntza jarduera eska daitezke.

NAPI

- NAPIk bere prestakuntza-eskaintza otsailaren erdialdera argitaratuko duela eta eskaera-epea otsailaren bukaeran izango dela uste dugu.
- Beste urte batzuetan bezala, NAPIren prestakuntza-jarduerak egin nahi dituztenek beren web-orrialdean eskatu beharko dute eta gero NAPIk zozketa egingo du, postuak esleitzeko.
- Litekeena da kasu hauek gertatzea:
 - o NUPen Katalogoko eta/edo G9ren prestakuntza jarduera bat edo bat bera ere eskatu ez dutenek, NAPIk lehen seihilekorako eskainitako prestakuntza jardueretan izena eman ahalko dute.
 - o Katalogoko eta/edo G9ren bi prestakuntza jardueratan onartuak izan direnek, ezin izango dute NAPIren prestakuntza-eskaintzako jarduerarik eskatu.
 - o Katalogoko edo G9ren prestakuntza jarduera batean onartuak izan direnek eta beste batean erreserban daudenek, uko egin beharko diote beren erreserbari, NAPIren prestakuntza-jarduera bat eskatu baino lehen.
 - o Katalogoko eta/edo G9ren bi prestakuntza jardueretan erreserban daudenek, gutxienez erreserbetako bati uko egin beharko diote, NAPIren jarduera bat eskatu baino lehen.
- Norbait ez badute onartzen NUPen Prestakuntza Planeko bi prestakuntza ekintzatan (prestakuntza plana, NAPI lehen seihilekoa eta G9), NAPIren udako bat edo bi eskatzen ahalko du, nahi izanez gero, eta onartzen badute, NAPIren prestakuntza jarduera batean onartua izan balitz bezalako tratamendua edukiko du.